

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Aiarako Udaleko informazio batzordeen funtzionamendua arautzen duen erregelamendu organikoari

Udalbatzak, 2020ko otsailaren 20an balio osoz egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Aiarako Udaleko informazio batzordeen funtzionamendua arautzen duen erregelamendu organikoari.

Espedientea jendaurrean egon zen hogeita hamar egun baliodunez, iragarki taulan eta ALHAOn (64. zk., 2020ko ekainaren 8koa). Aldi horretan ez zen hasierako onespeneren kontrako alegazio idazkirik aurkeztu.

Ondorioz, behin betiko onesten da erabaki hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta bat etorritik aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoarekin, oso-osorik argitaratzen da erregelamendu hori. Hona hemen:

Aiarako Udaleko informazio batzordeen funtzionamendua arautzen duen erregelamendu organikoa

Konstituzioak 9.2 artikuluan botere publikoak behartzen ditu herritar guztien parte hartzea erraztera bizi politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean. Agindu hori berretsi egiten da Konstituzioaren 23. artikuluan, herritarrei gai publikoetan parte hartzeko eskubidea bermatzen baitzaie, zuzenean edo ordezkarien bitartez.

Era berean, Toki araubidearen oinarrien Legeak 69.1 artikuluan ezartzen duenez, toki korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emango dute beren jardueri buruz eta herriko kontuetan herritar guztien parte-hartzea bultzatuko dute.

Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 19. artikulua udalerrien autoantolaketa arala aurreikusten du, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean xedatutakoaren arabera, beren kabuz ezarri ahal izateko beren eskumenak gauzatzeko beharrezkoak diren antolaketa eta egitura administratibo eta instrumentalak; eta, horregatik, eta ahalmen horri jarraikiz, erregelamendu hau idatzi da, zeinaren helburu nagusia honako hau baita: Informazio batzordeen izaera publikoa, batzordeetan herritarren parte-hartzea kontuan hartzen duen funtzionamendua arautuz.

Lehenengoa. Erregelamenduaren xedea

Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalbatzaren osoko bilkurak, erregelamendu organiko honen bidez, Aiarako Udalean dauden informazio batzordeen bilkurak publikoak izatea erabaki du, eta, aldi berean, organo osagarri horren funtzionamendua arautu du, herritarrek parte hartzeko aukera dutela ikusita.

Bigarrena. Informazio batzordeen izaera publikoa

Informazio batzordeetako bilkurak publikoak dira.

Hala ere, Konstituzioaren 18.1 artikuluan aipatzen diren pertsonen oinarritzko eskubideari eragin diezaioketen gaiak eztabaidatzea eta bozkatzeko sekretua izan daiteke, aipatutako batzordeko kideen gehiengo osoak hala erabakitzen badu.

Nolanahi ere, informazio batzorde baten irudi edo soinuen bidez grabazio bat egiten denean eta norberaren edo familiaren intimitateari, ohoreari edo norberaren irudiari eragin diezaioketen gaiak tratatzen direnean, presidentek aipatutako grabazioa eteteko aginduko du gai horiek jorratzen diren aldian, herritarren oinarriko eskubideak eta datu pertsonalak babesteko legeria babesteko. Batzordearen bilkuraren grabazioa, idazkaritzari akta idazten laguntzeko, inola ere ez da izaera publikokoa izango.

Informazio batzordeen aktak ez dira publikoak izango.

Hirugarrena. Informazio batzordeak egiteko tokia

Informazio batzordeak toki egokian egingo dira, edukiera, erreproduzioa edo grabazioa kontuan hartuta, edo hizkuntza eskubideak bermatzeko, hau da, aldi bereko itzulpena gehitu ahal izateko.

Laugarrena. Informazio batzordeen deialdiak

Informazio batzordeen bilkuretako deialdiak eta gai zerrendak udaleko iragarki taulan eta udal web orrian argitaratuko dira.

Bosgarrena. Arazteak batzordeetara bertaratzen den jendearen parte hartzea

1. Norbaitek informazio batzordean gai zerrendako punturen bati buruzko azalpenen bat egin nahi badu, eta horren aurretik administrazio izapideetan interesdun gisa parte hartu badu, dagokion informazio batzordeko buruari eskatu beharko dio, bilkura hasi baino lehen. Hark baimena eman ondoren eta ordezkari bakar baten bidez, azaldu beharrekoak azalduko ditu. Horretarako, gehienez, bost minutu izango ditu, gai zerrendako proposamena azaldu, eztabai-datu eta bozkatu aurretik.

2. Ohiko informazio batzordearen bilkura amaitutakoan, eta, beraz, batzordeko idazkariaren beharrezko bertaratzerik gabe, lehendakariak, bertaratutako jendeak hala eskatuz gero, udal intereseko gai zehatzei buruzko galde-eskeen txanda bat ezarri ahal izango du, gehienez ere bost minutukoa esku-hartze bakoitzeko. Batzordeburuaren ardura da txanda hori antolatu eta ixtea.

Seigarrena. Araudi aplikagarria

Erregelamendu honetan aurreikusi ez den guztirako, informazio batzordeen funtzionamenduari buruz honako hauetan jasotako xedapenak aplikatuko dira: 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua, 1986ko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua; eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

Azken xedapena

Erregelamendu hau bere testu osoa ALHAOn argitaratzen den unetik aurrera egongo da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2. artikuluan, lege horren 70.2. artikuluari lotuta, ezarritako epea igaro ostean.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Arespalditza, 2020ko uztailaren 21a

Alkate-lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA